

3.^a Altube jaunak eskutitz batez bere lan bat bialtzen digu. Iztegi beñirako oarpentxo batzuek ezarzen ditu. Ontzat artu ditugu.

4.^a Itz beñiak somatzen luzaro jardun degu.

5.^a Schuchardt sarirako laster letozke lanak. Ordurako ta oien azterketarako Euskaltzaindiak batzordea izendatu du: Aztertzaile izango dira: Lakonbe, Altube ta Ormaetxea jaunak.

Beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.

Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Lotaziñaren 20'an.

Jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi da.

1.^a Schuchardt-saria Dr. G. Rohlfs jaunari emanen zaio, lan bakara bai-da, ta iñoren kalte gabe, oraingoz, sari au eman liteke.

2.^a Azkue jaunari gernikar bat agertu zaio Euskaltzaindiaren zurezko ikurdi edo eskudo bat eskeiñaz. Ederki egiña bai-da eta Euskaltzaindiak beretzat artu du 50 peseta ordaindu-ta.

3.^a Euskaltzaindiaren laguntzaileak idazki bat zabaldu dute gipuzkeraz. Bizkaieraz ere jañi bear da.

4.^a Ormaetxea jaunak bere lan bat irakuri digu: *Pronombres personales, posesivos e intensivos*.

Beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoitzez amaitu da batzañaldia.
